



MAIATZAREN

a

Lanaren eta aberastasunaren banaketa aldarrikatu behar da

Maiatzaren 1a beti eskubideen bermerako aldarrikapen eta borroka egun bat izan behar du: **lan duin baten** alde, lanaren eta bizitzaren arteko kontziliazioa posible eginen dituen **lan jardunaldi** baten alde; enplegua dutenentzako **soldata eta gizarte prestazio nahikoen** alde eta lanik ez dutenentzako **Berdinen Arteko Oinarrizko Errenta** baten alde; duintasunez bizi ahal izateko **pentzio** egokien alde; lan erreformen, etxekaleratzeen eta mozal legeen aurka borrokatzeko.

Lan errenten murrizketa ugariak bezelako mekanismoen bidez burutzen ari den miloika langileen **pobretzeak munduko gizarte desorekatuenetako bat sortzen ari da**. Espainiako Bankuaren datuen arabera, espainiar estatuko biztanleen %25a pandemiaren aurretik pobre bihurtzeko edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan zen. Hau amaitutakoan egoera katastrofikoa izan daiteke. 4,5 miloi etxeetan ezin diete alokairua edo hipoteka ordaintzea, etxea bero mantentzea edo egunero jatea bezalako oinarrizko beharrei aurre egin.

Lau milioi pertsona langabezia, zeinei Estatuak langile gisa duten oinarrizko eskubidea ukatzen die: “bizimodua aurrera ateratzeko” eskubidea. Estatuak ez die duintasunez bizi ahal izateko **gizarte prestazio** batzuk edo **Berdinen Arteko Oinarrizko Errenta** bat jasotzeko eskubidea aitortzen.

Honen aurrean, iaz **ia 25 miloi ordu extra** burutu ziren, eta **hoietatik 11 miloi bakarrik ordaindu ziren**. Eta bereziki latza den datua, emakumeen kasuan betetako ordu extremen erdia baino gehiago ordaindu gabeak izan ziren.

Gainera **pandemiak sistemaren beste alderdi lotsagarri batzuk azaleratu ditu**. Interes ekonomikoa pertsonen bizitzaren gainetik jarri da; gehiengoaren beharren gainetik interes partikularrak babestu egin dira; zenbait xede legal urratu izan direnean administrazio gehienek beste alde batera begiratu dute; eskuzabaltasuna batzuekin eta enbutua besteekin. **Pribatizazio jarraien ondorioz hiltorian dagoen osasun sistemak** gainezka egin du eta gertakariak agerian utzi dute osasungintza pribatuak duen ezgaitasun handia.

Garai zailak datoz, garai asaldatuak, eliteen interesak berriro ere langilegoaren gainetik inposatzen saiatuko diren garaiak. Hala ere, berriz ere krisialdia betikoek ordaintzerik ezin dugu onartu. Gizarte gisa langilegoaren bizi baldintzak ziztu bizian amiltzen dihoazen bitartean erakunde finantzieroen erreskate berri bat onartzea jasangaitza litzateke.

Maiatzaren 1 hau, miloika langilek **aski da** esan eta gure eguneroko bizitza, oinazez eta umilazioz bete ordez, **Askatasunez** betetzeko egun bat izaten jarraitu behar du; gobernuari, enpresaburuari eta boteretsuari beste **Gizarte Ordena** bat inposatuz, lanaren eta aberastasunaren banaketak guztiontzako **bizitza duin** bat hemen eta orain ahalbideratuko duen ordena.

GORA MAIATZAREN 1a!

GORA LANGILEGOAREN BORROKA!

Lanaren Konfederakunde Nagusia

